

Hiria eta lurraldea

Land&city

Helmugaren
bihotzean,
esperientzia berde, urdin eta titaniozkoak



Turismo jasangarriago eta
arduratsua goaren alde

GARAPEN
IRAILIMKO GERA
HELBURUAK



BILBAO BIZKAIA

Land & City



Txartel honekin dirua aurreztuko duzu eta errazagoa izango da Bilbao Bizkaiko egonaldia planifikatzea, bai, garraio publikoan, bai museoetarako, ikuskizunetarako eta abarretarako sarreretan, dendetan eta aisialdiko bestelako espazioetan. Eskatu Bilbao Turismoko bulegoetan edo webgune honetan:

www.bilbaobizkaiaicard.com

2024ko Uztaila / Laugarren edizioa

Argitaratzailea: Bilbao Bizkaia be Basque

Argazkiak, turismoko esku-orrien bilduma: Beste egile batzuk

D.L.: BI-1014-2014/ 750

Hunkitu egingo zaitu

BISITATZEAK

6

Artea barrutik, artea kanpotik
Gaurko eta betiko Bilbao
Alde Zaharra, inoiz baino biziagoa
Bizkaiko Zubia
Itsasoak bustitako ondarea
Urdaibai, Biosfera Erreserba
Gernika, bakearen sinbolo
Naturaz inguratutako ondarea
Parke naturalak



Liluratuta utziko zaitu

PASEATZEAK

26

Bilboren kolore berria
150 km-ko kosta
231 eskailera-maila zerurantz
Artea txoko guztietan
Memoriaren ibilaldia



Liluratu egingo zaitu

IKUSTEAK

34

Hemen eskarmentua dute
Aste Nagusia
Mila ehuni baietz
Lan egitea kirola da
Merkatuak ikusten
Azokak eta kultura



Biziki gustatuko zaizu

PRAKTIKATZEA

42

Ibilaldiak itsasadarrean
Surfarekiko grina
Goitik begiratuta
Done Jakue bidearen Bilboko zatia
Mendi-ibiliak
BTTn ibiltzeko eremuak



Zoratuta utziko zaitu

EROSTEAK

48

Nortasunaren adierazgarri diren
produktuak
Dena diseinua
Kalekoa eta bigarren eskukoa



Gustatu egingo zaizu

JATEA

52

Michelin izarrak
Egile-sukaldaritza, betikoa,
Slow Food eta Urban menua
Pintxoak
Otordua hasi edo amaitu
Ausart zaitez, gaur zuk
prestatuko duzu janaria
Gozozaleak gara



TOP CITY&LAND

60

Inolaz ere ahaztu ezin duzuna
10 proposamenetan



“BASQUE WORLD” MUNDURAKO ATEA

Donostia, Gasteiz, Arabako Errioxa... oso gertu

62

INFO PRAKTIKOA

Helbideak, telefonoak, estekak...
jakin ezazu dena

66

Land & City

Gorantz zabalduz

Bizkaia sustraiak tradizioan dituen mosaiko berezia da eta Bilbao, berriz, bisitariak txundituta uzten dituen hiri modernoa.

Bilbao bere "botxo" naturalaren barruan dago eta gorantz zabaltzen da agertoki kosmopolita batean, hiriaren hasiera-ko Alde Zaharrarekin elkarbizitzan.

Kontrastez beteta, gozamena da bertatik **paseatzea**, baina baita, besteak beste, birmoldaketaren gakoak aurkitu diren arte hiriaren nortasuna eraiki duten toki eta eraikin enblematikoak **bisitatzea** ere.

Inguruko herriak, bai marinelenak bai barrualdekoak, historiaz beteta daude eta hurbiltzen direnek atseginez gozatzeko duten xarma naturala dute.

Jateari dagokionez, gauza bera gertatzen da: mundu osoan ezaguna den euskal sukaldaritzak hartaz gozatu nahi duten bisitariak erakartzen ditu etengabe.

Kirol tipikoei dagokionez, pilota-partidu on batera edo traineru estropadetara **joatea** gomendatzen dizugu.

Esperientzia berriak probatu nahi izanez gero, bisitariak era guztietakoak ditu, inor ez dadin benetako enak eta nortasun handienekoak **bizi** gabe geratu. Izaera hori hainbat alderditan ikus daiteke, esate baterako, artisautzan, bertako produktuekin batera gourmet bikainen eskaintza ere sartzen baita.




ARTEA
BARRUTIK

“**G**uggenheim Bilbao” efektuak eman dio hiriari nazioarteko ospea eta birmoldaketaren ardatz bihurtu du. **Frank Gehry** arkitektoaren lanak ez du inor interesik gabe uzten. Museoaren aurrean kokatuta, **Jeff Koons** Puppy txakur atsegina hiriaren maskota bihurtu da.

Handik oso hurbil, **Bilboko Arte Ederren Museoak** 110 urte bete zituen 2018an eta, bere erakusketen kalitatearen adierazgarri, hamar mila piezatik gorako ondare-multzo bat du ikusgai. Antzinako artea, arte modernoa eta arte garaikidea bildu dira hemen, Espainiako eta Flandriako eskoletako margolanekin eta euskal artisten bilduma garrantzitsuenarekin batera.

Museoei buruzko informazio gehiago 67. orrialdean.



Arte Ederren Museoa

ARTEA
KANPOTIK

Serra, Chillida, Oteiza edo Cristina Iglesiasen eskulturekin batera, besteak beste, Saura, Kiefer, Barceló, Tàpies, Schnabel edo Warholen margolanak ikus daitezke. Testuinguru honetan, arte garaikidearen onenaz gozatuko duzu.

Guggenheim Bilbao

Gaur egungo BILBAO

**Kosmopolita: hiri berria
definitzen duen terminoa**

8

Hiriaren arkitektura berriak benetan abangoardiakoa den agertokia diseinatu du. Gaur egungo Bilbok ahalegin handia egin du hiria "arte gurtzeko" gune bihurtzeko eta, horrela, munduko arkitekto garrantzitsuenak bildu ditu. Zubiek, metroak, pasealekuek eta eraikinek, publikoak zein pribatuak izan... Ezerk ez gaitu interesik gabe uzten.



Fosterittoa

Ba al zenekien Bilboko metroaren ahoei "fosterito" deitzen dietela, beren sortzaile Sir Norman Fosterren omenez?



Azkuna Zentroa (Alhondiga Bilbao)

A
GOOD
IDEA!

1909an ardo-biltegi handi gisa sortua, gaur egun balio anitzeko kultur-etxe txundigarria da. Atarian 43 zutabe ditu, Philippe Starckek pentsatu eta Lorenzo Baraldik gauzatutakoak. Motibo txinatarrak, Erdi Arokoak, neoklasikoak, etab. dituzte eta hainbat material ezberdinekin eginda daude: marmola, harria, zeramika, adreilua, egurra, brontzea... gizateriaren historian zehar murgilduz.

www.azkunazentroa.com


BILBAO ARKITEKTURAREN MUNDUKO KATALOGOAN

Azkuna Zentroa (Bilboko Alhondiga), Ricardo Bastidarena, **Philippe Starckek** birgaitua
Guggenheim Bilbao museoa, **Frank O. Gehry**rena
Euskalduna jauregia eta Plaza Bizkaia eraikina, **Federico Soriano** eta **Dolores Palacios**enak
Bilboko metroa, **Norman Foster**ren
Bilboko Nazioarteko Aireportua "La Paloma" eta
Zubizuri zubia, **Santiago Calatrava**renak
Artklass eraikina, **Robert Krier** eta **Marc Breitman**ena



Zubizuri zubia eta Isozaki dorreak

Iberdrola dorrea, **César Pelli**rena
Isozaki dorreak, **Arata Isozaki**renak
Euskadi plaza, **Diana Balmori**rena
Deustuko Unibertsitateko liburutegia, **Rafael Moneo**rena
Euskal Herriko Unibertsitatearen areto nagusia, **Álvaro Siza**rena
Osakidetza eraikina, **Coll - Barreurena**
San Mames futbol-zelaia, **César Azkareterena**
Vinci Consulado de Bilbao Hotela: "Agvar arquitectos" eta "Axis Arquitectura y Urbanismo".



San Mames

BETIKO BILBAO

Kale Nagusiaren lehen zatian, **Aldundiaren Jauregia**, XIX. mende-amaierakoa, Bizkaiko «eklektizismo alfonsotarraren lan gorenetakoa bat» da.

Estilo historiko ezberdinetako elementuak baliatzen ditu, fatxaden konposizioari eta ornametazio-aberastasunari garrantzi handia emanez, kanpoaldean (diamante-puntaz landutako harlandua) nahiz barrualdean ikus daitekeenez.

Bereziki aipatzekoa da Tronuarien Aretoa, Jose Echenagusia Errazquin artistaren bi freskorekin: "Foruen zin-egitea" eta "Oinaztarren eta ganboatarren bakegintza".

Aldundiaren Jauregia

Dotoretasuna eta klasizismoa

Ondo begiratzen baduzu, Bilboko **Zabalguneak** biak elkartzen ditu, burges-bokazioa eta goi-mailako etxebizitzak erakutsiz Kale Nagusian, hala nola, **Sota** eta **Lezama-Legizamon** eraikinak. Era berean, **Txabarri Jauregia**, Moyua plazan, garaiko hazkunde ekonomikoaren adibide ona da, eta aniztasunaren adierazle dugu **Montero etxea**, estetika modernistakoa. **Campos Elíseos antzokia** da Euskal Herrian arkitektura horren erreferentzia, Darroquy euskaldun frantsesaren fatxadarekin, dekorazioan aberatsa.

Betiko hiriaren adierazgarri, **Arriaga antzoki** neobarrokoa ere badago, XIX. mendearen amaierakoa. Pixka bat aurrerago, **udaletxeak** bere izaera enblematikoa adierazten du Bilkuren Aretoa eta Areto Arabiar zoragarrian. Futbola gustatzen bazaizu, estilo neoeuskaldunaren eraikin adierazgarri bat Athletic klubaren egoitza da, **Ibaigane jauregia**. Kultura nahiago baduzu, Guggenheim Bilbao museoaren aurrean **Deustuko Unibertsitatea** dago, jakituriaren hedapen-gunea eta Bilbao Handiaren garapenean lagundu duen egoitza.

Konkordia geltokia

Konkordia geltokia estilo modernistako eraikin bitxia da, 1902an eraikia. Eraikinaren fatxada Belle Époque garaiko Bilboren ondare adierazgarrienetakoa bat da eta, bertan, arrosa-leiho nabarmentzen da.

"Konkordia" izena bere kokalekutik dator, akordioan amaitu zen bilera jendetsu baten lekuko izan ziren pabiloi batzuen egoitza izan baitzen.

Konkordia geltokia



Udaletxea



Deustuko Unibertsitatea



Diotenez, Miguel Mendizabalek, eraikinaren eta bertan zegoen Tigre markako transmisio-uhalak egiteko fabrikaren jabea zenak, liskarra izan zuen Bilboko burgesiarekin. Horregatik eskatu zion bere diseinatzaile Lucariniri piztiak Indautxu aldera begiratzeko, orro eginez.

A
GOOD
IDEA

Hiria ezagutzeko beste modu bat Bilbo gurpil gainean zeharkatzea da. Bilbao City View autobus turistikoak hiriaren ikuspegi panoramikoa emango dizue.

bilbaocityview.es



Bilboren sorburu den monumentu- -multzoan barrena ibiltzearen xarma

Monumentu historiko-artistiko izendatua, **Bilboko Alde Zaharrea** (jendeak "Zazpikaleak" deitzen diona) ibiltzen zarenean, duela 700 urte baino gehiago hiria historia sortzen hasi ziren kaleetan murgilduko zara. Honako hauek ezinbestekoak dira: **Done Jakue katedrala**, hiribilduko zaindariaren izena hartu duena; **Plaza Barria**, lehena eta nortasun handienekoa; **Mallona galtzadak**, Bizkaiko zaindaria **Begoñako Basilika** baino eramango zaituztenak, 311 eskailera-maila igo ondoren; **San Anton Eliza**, Bilboren armaria integratuta duen zubiarekin; **Erriberako Merkaturia**, azalera estali handiena duen Europako merkaturia; **Areatzak lorategiak**, horrela deituak harea-kantitate handia izateagatik ontziek hondoa jotzen zuten lekuan; **Arriaga Antzoki** enblematikoa.



Plaza Barria



Alde Zaharrean bihotzean, hiri-bildua sortu zen lekuan, pintxoak jateko eta txikitoak hartzeko giro alaia dago. Ondareak, gastronomiak eta bertako 400 dendatan baino gehiagotan erosketak egiteak askorako ematen dute. Historian barrena ibilaldia, xarmaz beteriko establezimendu espezializatuekin.

Alde Zaharra

INOIZ BAINO BIZIAGOA

Done Jakue katedrala

A
GOOD
IDEA!

Eiffel dorrean inspiratutako burdinazko bere egiturak aho zabalik uzten gaitu oraindik, eta, gainera, itsasadarren bi ertzak lotzen ditu **Portugalete** eta **Areeta** (Getxo) parean, itsasadarren ahoan. 2006an, UNESCOk gizateriaren ondare izendatu zuen. Bertako txalupan edo goiko aldetik oinez zeharkatuz gero, ikuspegi ederrez gozatuko duzu.

BIZKAIA

Zubia

BI ERTZAK ELKARTUZ

www.puente-colgante.com

15



Portugalete

Ezkerraldea, industriatik eta lanetik berrikuntzara

Beste garai batean, itsasadarren ertzak, Bilbotik kanpo, ez ziren gaur egungoak, eta ezkerraldean, zehazki **Barakaldon** eta **Sestaon**, metatzen zen zonaldeko zama handiko industria guztia.

Hiriburuan, eta itsasadar osoan zehar, irakiten ari zen jarduera guztiak, gaur egun, eszenatoki guztiz berritu bati utzi dio lekua, garapen ekonomikoa konbinatuz biztanleen eta bisitarien gozamenenerako diseinaturako aisia-leku ugariarekin. Bestelako udalerrien artean, **Portugalete** edo **Santurtzi** dira berrikuntza horren adibide.

A
GOOD
IDEA!

Bilboko itsasadarren bokalearen ikuspegi paregabea izango duzu Bizkaia Zubiaren goiko pasabidera igotzen bazara, 50 metroko altuerara.

Eskuinaldea, Bilboren kanpoaldean, beti izan da bizitegiarako leku; horren adierazgarri dira garatzen ari zen burgesiak itsasadarrean zehar eraiki zituen eraikin zoragarriak.

Horren adibide onak dira Getxoko hainbat udalerrri, hala nola, **Areeta**, **Neguri** eta **Algorta**.

Eskuinaldearen izaera dotorea



Areeta kaia



Armitza



Bakio



Mundaka

Mundaka. Izena ematen dion itsasadarraren ahoan dagoen udalerri lasaia da. Bisita asko ditu, batez ere, mundu osoko surfisten artean bere «ezkerreko olatua» famatua egin denetik.

Lekeitio. Bere kai xarmagarriaz gain, XVI. mendeko Andre Mariko Erretaula Nagusia ere interesgarria da. Penintsulan zizelkatutako hirugarren erretaula gotikorik handiena da, eta bere erdian XIV. mendeko Andra Mari bat dago.

zehir Ibilbidea egitea KOSTALDEAN



Sopela

Sopela. Surf egiteko hondartza aparta.



Barrika

Barrika. Itsaslabarren eta hondartza basatien herria da.

Armitza (Lemoiz) Orain egoitza-itxura handiagoa duen arren, lehen arrantza-kontserba-industria handia zuen, eta Bizkaiko kostaldeko babesten zuen gotorlekua zen.

ARMINTZA

BAKIO



Elantxobe


Elantxobe. Herri txiki honen kaia antzina arrantzarako erabiltzen zen, baina orain kirol-portu gisa erabiltzen da. Herria itsasoari begira dago, eta kale estu eta aldapatsuak dauzka, itsasertzera jaisten den teilatu-eskailera osatzen duten etxeekin.

BERMEO

ELANTXOBE

EA

MUNDAKA



Lekeitio

LEKEITIO

ONDARROA



Zierbena

Zierbena. Itsas jatetxeak eta Muskizera iristen den hondartza ospetsua, Areatza.

ZIERBENA

SANTURTZI



Santurtzi

Santurtzi. Bertako arrantza-jarduera handiak eragina izan du kai ospetsuan, baita itsasoa beti erreferente gisa duen biztanlerian ere.



Portugalete

Portugalete. Koloretako etxeak eta Bizkaia zubia dauden kaitik ateratzen diren aldapa handiak dauzkan alde zaharra du. Bizkaia zubia Portugalete eta Getxo lotzen dituen Zubi eseki gisa ere ezaguna da.

GORLIZ

PLENTZIA

BARRIKA

SOPELA

GETXO

PORTUGALETE



Plentzia

Plentzia. Itsasadarra amaitzen den badia ederrean dago. XIII. mendeko jatorria duenez, Erdi Aroko alde zahar interesgarria du.



Gorliz

Gorliz. Balio natural handiagatik nabarmentzen den kostaldeko txoko txikia. Bertatik argiz beteriko paseo lasaiak eman ditzakegu.



Getxo

Getxo. Oso aukera interesgarria ditu, esaterako, Galeatik eman daitekeen paseoa, Algortako Portu Zaharraren giroa edo Punta Begoña Galeriak. Azken horiek, duela 100 urte eraiki ziren, eta gaur egun eraberritu egin dira, sorkuntza-eremu, erakustoki eta prestakuntza eta aisialdirako leku bilakatuz.




Bermeo

Bermeo. Bizkaiko alde zaharrik handiena du, eta Talak badiaren ikuspegi zoragarria eskaintzen du. Badian, balea-arrantzako iragana islatzen duen 60 metroko horma-irudia dago.

GERNIKA



Gernika



Ea

Ea. Itsasadarrak eta itsas itxurako eraikinez osatutako herri txikia da, xarma berezikoa. Bisitatzea oso gomendagarria den altxor txikia dela esan daiteke.

Gernika. Herri historikoa, bere biztanleriak Espainiako Gerra Zibilean (1937an) jasan zuen bonbardaketarengatik eta Euskal Herriaren eta demokraziaren ikur izateagatik mundu osoan ezaguna.



Ondarroa

Ondarroa. Bere zubi zaharrak, Arrantzale-kofradia zaharrak eta Santa Maria elizak bere ibai-portua nabarmentzen dute. Gaur egun, altuerako arrantza-porturik garrantzitsuenetako bat da, harrapaketa kopuru handia baitauka.

URDAIBAI

Biosferaren erreserba naturala

18

Urdaibaiko estuarioa Oka ibaiaren ahoan sorturiko naturagunea da. Bertako aberastasun ekologikoari esker, biosferaren erreserba izendatu du Unescok, eta Natura Sarean dago. Hegazti migratzaileen atsedenleku garrantzitsua da, eta Urdaibai Bird Center zentrotik behatu ahalko dituzu horiek.

Oso paisaia anitza da, itsasoa, altuera txikiko mendiak, mareabeheran sortzen diren hareatzak eta padurak, hondartza ederrak (Laga eta Laida) eta kala txikiak (Antzoras, Lapatza eta Aritzatxu) baitauka.

www.turismourdaibai.com



Naturagune Babestuetako Turismo Jasangarriaren Europako Gūtuna EUROPARC federazioaren ekimen bat da, helburua duena Europako naturagune babestuetan turismoaren garapena sustatzea, jasangarritasunaren ikuspegitik. Etortzen zarenean, komeni da Urdaibairi egiten diozun bisitak ingurumenean, gizartean eta, orokorrean, ekonomian eragin positiboa izatea.

NOLA
BISITATU

Gernikatik Bermeora

Errailetan edo behatokiez gozatuz

Eser zaitez eskuineko leiho baten ondoan **Bermeoko** norabidean bazoaz eta hartu prismatikoak, **Gernika-Lumo** eta **Mundakaren**: arteko paisaia eder batez gozatuko baituzu: lezkadiak, padurak, itsasbeherak ikusgai uzten duen lohia, Oka ibaiaren meandroak...



edo itsasontziz

Bestalde, itsasoaren ikuspegiaz gozatzea nahiago baduzu, itsasontzia har dezakezu, paisaia beste ikuspuntu batetik ikusteko.

Informa zaitez hemen:
www.turismourdaibai.com



Gainera, hegazti asko ere ikusiko dituzu hegan: basahateak, ahate mokoabalak, txilinporta txikiak, koartza hauskarak, mokoabal zuriak, arrano arrantzaleak eta klima hobearen bila datozen Eskandinaviako antzarak ere.



19



Bakearen Museoa



Gernikako Batzar Etxea



Europako Herrien Parkea



Gernikako azoka

Bakearen Museoa, Batzar Etxea, Euskal Herria Museoa Eta Europako Herrien Parkea

Bizkaiaren eta euskaldunen sinboloa den herririk badago, **Gernika-Lumo da hori**. Bere historia, tamalez, Gerra Zibilaren testuinguruan 1937an jasandako bonbardaketak kaltetu zuen, eta pasarte hori oinarri hartuta sortu da nortasun handiko herri indartsu hau, bakearen eta askatasunen erreferentea.

Batzar Etxeak (bertan egiten dira Bizkaiko Batzar Nagusiak), **Bakearen Museoa** edo **Euskal Herria Museoa**, **Santa Maria elizak** eta **Europako Herrien Parkeak**, non Txillidaren eta Henry Moore eskulturak dauden, nahitaez bisitatu behar den ondare historiko eta kulturala osatzen dute.

Bere **nekazaritza-azoka**, astelehenero ospatzen dena, ospetsua da. Urriaren azken astelehena da egunik garrantzitsuena. Hor ikusi ahal izango dituzu gertutik Euskadin maitasun osoz egiten diren nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuak, kalitaterik onenekoak. Ziur horietakoren bat eskuratuko duzula.

Beste ideia interesgarri bat **Jai Alai** frontoia bisitatzea da: zesta-puntaren frontoirik ospetsuena da, harrizko frontisa, errebotea eta lurzorua dituen bakarra. Bertan euskal pilota mota hori jolasten da. Kirola zumezko eta gaztainondo-egurrezko saskiarekin pilota jaurtitzean datza, eta pilotak 300 km/h-ko abiadura har dezake.

Gernika

Gure historiaren bihotza

Gernikako Batzar Etxea

Monumentu- ondarea

NATURAZ INGURATUA

Ondare-aberastasuna gustuko baduzu, Bizkaiaren barrualdea historiaz beteta dago eta bisitatu beharreko hainbat gune eskaintzen dituen aukera interesgarria da. Balio monumentalari ingurunearen edertasuna gehitzen zaio; geografia honetan naturaren erabateko dotoretia ikus daiteke.

Durango



DURANGALDEA

Durangok monumentu-ondare aberatsa du; nabarmentzekoa da alde zaharra, Erdi Aroko egitura duena.

Aipatu beharrekoak dira **Santa Ana Arkua**, Uribarriko **Andra Mari Eliza** eta **Kurutziagako gurutzea**, XV. mendearen amaierakoa, Kurutzesantu museoan ikus daitekeen objektu bikaina.



Urkiola

Elorrion jauregiak, armarridun etxeak, estela aurrekristauak eta gurutzadurak nabarmentzen dira. Aipatzekoak dira, halaber, **Argiñetako nekropolia**, **Sortzez Garbiaren basilika** eta **Berrio-Otxoa Museoa**.

Udalerrria **Urkiolako parke naturalean** dago, erromesen jomuga eta erromeria tradizionalen kokaleku den **Urkiolako Santutegia** bezala.

www.turismodurango.net
www.visitelorrio.com



Urduña



GORBEIALDEA URDUÑA

Arratiako haranean kokatua, **Urduña** hiri-titulua duen Bizkaiko herri bakarra da.

Monumentu-hiri izaera hainbat tokik ematen diote, besteak beste, honako hauek: **Antiguako Andra Mariaren Santutegia** eta **Familia Sakratuaren eliza**.

Garai bateko aduana, hiriaren erdian kokatutakoa, hotel gisa prestatuta dago.

Ingurunekeologia- eta paisaia-aberastasuna bistakoa da **Gorbeialdeko Parke Naturalean**; bertara, **Orozko**tik irits zaitezke.

www.gorbeiaeuskadi.com



ENKARTERRI

Eskualdeak iraganera garamatza, naturaz inguratutako meatze- eta ondare-multzoz batean zehar.

Herri nagusia **Balmaseda** da eta, bertan, **Zubi Zahar** ederra zeharkatu ahal izango duzu, harresiari elkartutako dorrearekin.




Balmaseda

Behinola, kostaren eta Gaztelaren arteko pasabide bakarra izan zen.

Abellanedako Juntetxea, hainbat mendetan inguruko gobernuaren egoitza eta lurraldeko askatasunaren eta frankizien sinbolo izandakoa, gaur egun Enkarterriko Museoa da, eskualdeko bizimoduaren eta nortasunaren historia ezagutarazten duena. Ildo horretan oso interesgarriak dira **El Pobaleko burdinola** eta **Meatzaritzaren Museoa**.

Antzinako autoak gustuko badituzu, zator **Loizaga dorrera**. Eta eremu naturalean kokatutako artea nahiago baduzu, berriz, **Arenatzartera**.

www.visitenkarterri.com



Zenarruzako Monastegia



LEA-ARTIBAI MARKINA-XEMEIN

Lea-Artibaiko eskualdean kokatua, Markina-Xemein euskal kostan zehar doan Done Jakue bidean dago; horrexegatik du Erdi Aroko diseinua. Bitxia da **Arretxinagako San Migel Baseliza**, oinplano hexagonalekoa, aldare ikusgarrian monumentu megalitiko bat duena.

Inguruko harribitxietako bat, Erdi Aroan eta Errenazimenduan Done Jakue bideko gune garrantzitsu izandakoa, **Ziortza-Bolibarko Monasterioa** da, Euskadiko monumentu nazional izendatutakoa.

Bertatik hurbil, izen bereko udalerrian, "Libertador" deiturikoaren arbasoen jaioterrian, **Simón Bolívar museoa dago**, hari eta Erdi Aroko bizimoduari buruzko informazioa eskaintzen duena.

www.leaartibaiturismo.com

PARKE NATURALAK

aire garbia bizkar-zorroan

Izaera handiko paisaiak, margolan eder diruditenak eta ezagutu beharreko natura eskaintzen dutenak. Bizkaiko parke naturalak bisitatzea pribilegioa da. Denontzat eskuragarri daude; zentzumenak zorroztu eta gozatu besterik ez duzu. Ibilbideko herrietan, bertako jendea eta bizimodua ezagutuko dituzu. Esperientzia paregabea.

A
GOOD
IDEA!

Urkiolako Parke Naturala

URKIOLA

Paisaia erabat euskalduna: malkartsua, berdea eta harritsua, 1.330 metroko **Anbotoren** profila nagusi dela. Bertako kobetan, legendak mito bihurtu dira; aipatzekoa da Mari, jeinuen erregina, mendiaren horma bertikalean bizi dena. Parkean gain harritsuak, haranak eta sakanak daude eta mendizaleek eta mendi-ibiliak gustuko dituztenek maiz bisitatzzen dute.

Hemen dago **Urkiolako santutegia**, lehenbailehen bikotekidea aurkitu nahi dutenentzako jomuga; harriaren inguruan hiru itzuli eman besterik ez dute.

www.urkiola.net

www.basquemountains.com

Armañongo Parke Naturala

ARMAÑÓN

Mendigune hau Kantabriarekiko muga da eta Enkarterriko eskualdean dago; aipatzekoa da **Armañón** gailurra, 854 m-koa. Erabateko landa-izaera duten hainbat mendixka eta mendi-gain ditu. Inguruan 200 koba eta leize baino gehiago daude, besteak beste, **Pozalaguako koba**, munduko estalaktita eszentriko gehien dituen.

www.visitenkarterri.com

www.basquemountains.com

GORBEIA

Euskadiko toki puruenetako bat **Gorbeia** da, Bizkaia eta Arabak bat egiten duten lekua. 1.482 m-ko gailurra da muga. Inguruan, besteak beste, larre leunak, pagadiak eta hariztiak daude, arroka malkartsuekin eta barrunbe ugarirekin batera. Aipatzekoak dira **Mairulegorretako koba**, 12 km-tik gorako luzerakoa, eta Itxinako karsta, **Itxinako biotopo babestuan** sartutakoa.

www.gorbeiaeuskadi.com

www.basquemountains.com

Gorbeia Parke Naturala

BILBOREN *kolore berria*

A
GOOD
IDEA

Ikuspuntuak ARTXANDATIK

Ez zaitez autoz igo, har ezazu funikularra eta hiriaren biriketako batera iritsiko zara. Bertatik **botxoaren** ikuspegi panoramikoak izango duzu.



Casilda Iturrizar parkea

Bilbao berdez janzten da alde guztietatik

H iribildua ez da lehengoa... Hor ere ikus daiteke aldaketa. Ikusiko duzunez, grisa atzean geratu da; izan ere, berdeguneak leheneratzea hiriaren eraldaketaren funtsezko beste elementuetako bat izan da.

21 hiri-parke eta **5 baso-eremu** dira (guztira, 1.225 ha). Hirigunea inguratuz, **mendiko ibilbide luzeak**, 99,30 km-koak, baso-parkeak zeharkatzen ditu eta **Eraztun Berdea** osatzen du. Hori guztia kontuan hartuta, **biztanleko 24 m²-ko berdegunea** dago, **21 aisialdi-eremutan banatuta**, umeentzako jolasguneekin, barbakoeekin, mahai eta bankuekin eta informazio-kartel eta kartel panoramikoekin.

Bertara Bilboko hainbat lekutatik irits zaitezke, ardatz nagusira daramaten hamaika bidetan barrena.



Berdin dio noiz zatozen, Bizkaiko kostaldeko hondartzek bizitzaz beterik daude beti. Eguzkitsuak udan, lasaigarriak udaberrian, gozoak udazkeneko ilunabarretan eta harroak neguan. Gainera, oso edertasun paregabea dute... Horregatik dira hain ospetsuak.

Hemen, HONDARTZAK urte osoan zehar aprobetxatzen dira

28

Isuntza hondartza (Lekeitio)

Bizkaian mota askotariko hondartzak daude: hirikoak, hala nola **Gorliz** eta **Plentzia**, **Isuntza** Lekeitio, **Karraspio** en Mendexan edo **Laidatxu** Mundakan. Oso jende asko joan ohi da baita ere **Ereaga** eta **Arrigunaga** hondartzetara, **Getxon**, baita **Areatzara** Muskizen, edo **Ea** eta **Arrigorriara** Ondarroan. **Laida**, en **Ibarrangelun**, ikaragarria da itsasbehera dagoenean duen tamainarengatik eta ingurunearen edertasunarengatik (Urdaibaiko erreserba)

Gazteentzako giroaren bila bazaude, surf edo kayak egiteko aukerarekin, honako hauek dituzu: **Bakio** edo **Gorrondatxe/Azkorri**, **Arriatera** (Sopela), **Laida** edo **Laga Ibarrangelun** edo **Barinatxe**, gaztelaniaz ere **La Salvaje** gisa ezagutzen dena, **Getxo** eta **Sopelaren** artean,

Ispastarren dauden **Armintza** edo **Ogeia** hondartzak, berriz, edertasun handiko bazterrak dira.

Sopela



Arena P WC WC ISO 14001 ISO 9001
MUSKIZ-ZIERBENA

Zierbena P WC ISO 14001 ISO 9001
ZIERBENA

Areetza P WC
GETXO

Ereaga P WC WC ISO 14001 ISO 9001
GETXO

Arrigunaga P WC WC
GETXO

Gorrondatxe/Azkorri P WC WC
GETXO

Barinatxe P WC WC ISO 14001 ISO 9001
GETXO – SOPELA

Arriatera-Atxabiribil P WC WC ISO 14001 ISO 9001
SOPELA

Meñakotz P WC
BARRIKA/SOPELA

Barrika P WC
BARRIKA

Muriola P WC
BARRIKA

Plentzia P WC WC ISO 14001 ISO 9001
PLENTZIA

Gorliz P WC WC ISO 14001 ISO 9001
GORLIZ

Armintza P WC
LEMOIZ

Bakio P WC WC ISO 14001 ISO 9001
BAKIO

Aritxatxu P WC
BERMEO

Laidatxu P WC WC ISO 14001 ISO 9001
MUNDAKA

Toña P WC WC ISO 14001 ISO 9001
SUKARRIETA

San Antonio P WC WC ISO 14001 ISO 9001
SUKARRIETA

Kanala P WC
GAUTEGIZ - ARTEAGA

Laida P WC WC ISO 14001 ISO 9001
IBARRANGELUA

Laga P WC WC ISO 14001 ISO 9001
IBARRANGELUA

Ea P WC WC ISO 14001 ISO 9001
EA

Ogeia P WC WC ISO 14001 ISO 9001
ISPASTER

Isuntza P WC WC ISO 14001 ISO 9001
LEKEITIO

Karraspio P WC WC ISO 14001 ISO 9001
MENDEXA

Arrigorri P WC WC ISO 14001 ISO 9001
ONDARROA

29



Zaindu zure ingurua eta mantendu
hondartzak garbi eta hondakinik gabe



GAZTELUGATXEKO DONIENE

241 maila zerura

30

Ahalegina egiteak merezi du. Kostalde harro honetako paisaiarik ikaragarrienetako bat ikusiko duzu.

Babestutako biotopo naturala

Uhartetxo handi hau bi arkuko istmo batek lotzen du lurrarekin San Juan Gaztelugatxekoa oso errotuta dago arrantzaleen artean, izen bereko baselizaren barruan itsasotik salbatutako marinelen boto-opariak, eskaintza gisa emandako itsasontzien maketak eta hondoratzeak dauden itsasontziak irudikatzen dituzten koadroak daude. Kondairak dienez, Bermeora iritsi zenean, San Juanek hiru urrats handi eman zituen baselizara iritsi aurretik... azkena sarbidearen azken mailan emanda. Ez utzi alferkeriari irabazten eta igo eskailerak, hain da ederra bere enklabea, bisitatzea gehien merezi duen lekuetako bat dela.

NOLA
BISITATU Oinez Itsasotik (ikus egin daiteke, baina da posible joatea) Garraio publikoa**P** Aparkalekua

Gogoan izan babestutako biotopoa denez, edukiera kontrolatu ohi dela eta aurrez erreserba egin behar dela.

 Zaindu ingurune naturala eta erabili oinetako egokiak.

Ibilbide gogorra da, eta ez da egokia desgaitasuna edo arnasketa- zein bihotz-arazoak dituzten pertsonentzat.
Bestalde, ibilbidea ezin da haur-kotxeekin egin.

Matxitxakoko itsasargia

HEMENDIK
HURBIL

31

Bermeon itsasargia hau ikusi ahal izango duzu. Bere lehen egitura ez da jada erabiltzen, eta XIX. mendekoa da. Gaur egun erabiltzen jarraitzen dena, berriz, XX. mendekoa da.

Akatz eta Izaro uharteak



Izaro

Matxitxakoko lurmuturraren inguruan San Juan Gaztelugatxekoa egoteaz gain, Akatz uhartetxoa eta Izaro uhartea ere daude. Izaron, antzinakoan, komentu frantziskanoa zegoen, eta Izaro Films produkzio-etxe famatuari eman zion izena. Guztietan aurki daitezke interes handiko itsas hegaztien koloniak.

ARTEA txoko guztietan



Omako basoa

32

Land ART


Liluragarrietan liluragarriena... Halakoa da Kortezubin dagoen **Omako basoa**, Agustín Ibarrolak pintatu zituen eta irudi bateratu bat osatzen duten enborrez osatua. Aurretiko hitzordua beharrezkoa da.

Bada artea eta natur eremua konbinatzeko bokazioa duen parke bat, **Arenatzarte**, Arenatza parke botanikoan abangoardiako eskultura ugari biltzen dituena. Hainbat obra ikusi ahal izango dituzu: Roscubas anaienak, Angel Garrazarenak, Koldobika Jauregirenak...

Artea barne hartzen duen beste leku bat Gernika-Lumoko **Europako Herrien parkea**, da, Juntetxearen ondoan kokatua. Zuhaitz ugariren artean, Eduardo Chillidaren eta Henry Mooreren eskulturak ditu.



ARENATZarte



Europako Herrien parkea



Dantzaren musa (Dalí)



Tokiak eta lekuak (Ángel Garraza)

Memoriaren
ibilaldia

Aire zabaleko sormenak ere bere lekua du Bilbao berrian. Horren adierazgarri da **Memoriaren Ibilaldia**, Abandoibarrako hiri-berroneratzean integratua eta López Chollet arkitektoak egina.

Eremu honek, museo-lorategi modukoak, hiri osoa zeharkatzen du eta La Naja kaia, Ripa, Uri-bitarte eta Olabeaga lotzen ditu.

Egile garaikideek aire zabaleko eskulturak sakabanatu dituzte Abandoibarran: Dalí, Chillida, Koons, Bourgeois, Kapoor, Novatt, Valdés, Klein, Garraza, Larrea, Zugasti, Nakaya... Eskultura ugari ikus daitezke txoko, plaza eta paseoetan barrena oinez zoazenean. Liluragarria da hainbeste artelaren artean paseatzea.



Ohoragarrien Atea (Casto Solano)

33

HEMEN ESKARMENTUA DUTE

Euskaldunen kultura musikal oso ezaguna da; logikoa da Bilboko jendearen opera-zaletasuna ere nabarmentzea. Horren adierazgarri da **OLBE** (Operaren Lagunen Bilboko Elkartea), duela berrogeita hamar urte sortua. Ibilbide benetan arrakastatsua izan du eta Estatuko eta Europako opera-erakunde handien artean finkatu dela esan daiteke. Hiriak munduko antzezle-zerrenda onenak jasotzearen pribilegioa du urtero.

34



Arriaga antzokia

Kultur jarduerari dagokionez, Bilboko eta Bizkaiko egutegia ikuskizun bezala beteta dago denboraldi osoan zehar. Nabarmentzekoa da **Bilboko Orkestra Sinfonikoa (BOS)**, maila handikoa, bere laguntza izaten duten solista ospetsuek eta ahotsek erakusten duten bezala. Klasikoen artean dagoen jaialdia **Musika-Música** jaialdia da, ez bakarrik egitarauen kalitateagatik, baizik eta baita parte hartzen duten artisten mailagatik ere.

Bizkaian, Bermeok **Musikaren Nazioarteko Astea** du, eskaintza zabalekin: kontzertu lirikoak, ganbera-musika, fadoak... **Ziortza-Bolibarko Antzinako Musika Jaialdiak** Monteverdi eta Bach bezalako egileen lanak eskaintzen ditu.



Campos Eliseos antzokia



Euskalduna Bilbao

35

Kalitatea, hori da Bilbok metatzen dituen ikuskizunak definitzen dituen hitza

Pop- eta rock-musikak ere kalitate nabarmeneko ekitaldiak ditu. Ikusgarria da **Bilbao BBK Live**, urtetik urtera bere burua hobetzen duena. **Bilborock** egitarauko jarduera gazteengatik da ezaguna, hainbat formatutan: musika, zinema, antzerkia, dantza... Bilbon ere **BBK Bilbao Music Legends Fest** eta **Bilbao Blues Festival**ez gozatu dezakezu. Bilbaina Jazz Club-ek goi-mailako interpretazioak eskaintzen ditu astero. Probintzian, nabarmentzekoak dira Armintzako **Txapel Reggae** edo **Basauriko MAZ**, Estatuan dagoeneko ospe handikoak, eta, nola ez, **Getxoko Jazzaldia** eta **Folk Jaialdia**, bertako eta atzerriko taldeekin.

Arte eszenikoei dagokienez, Bilbok Antzerki eta Dantza Garaikide Jaialdia (**BAD**) du, genero honetako abangoardia biltzen duena. **Bilboko Kalealdia** kaleko antzerki eta arteen jaialdia da. Hiri-kultura eszenikoen nazioarteko jaialdiak, **BreakOnStage**, jarraitzaile asko ditu jada. **Portugaleteko Folklore Jaialdiak** mundu osoko dantzariak biltzen ditu...

Zinemaren genero guztiak eskaintzen dira hainbat zinemalditan: **ZINEBI** (zine dokumental eta laburmetraia nazioarteko zinemaldia), **Zinegoak** (gay-les-trans nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdia), **FANT** (zinemaldi fantastikoa), **Film Sozialak** (zinema Ikusezina), **BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia**, (mendiari buruzko nazioarteko jaialdia).

ASTE NAGUSIA

Aste handiena

Abuztuaren 15 ondorengo larunbatetik aurrera izaten da, urtero, eta, bere izenak dioen bezala, Bilboko Aste Nagusia da, horren baitan musika, antzerkia, performance-ak, opera, folklorea, su artifizialak eta askoz ere gehiago antolatzen baitira. Konpartsek jaiak girotzen dituzte beren musikarekin eta beste jarduera batzuekin, eta jaiaren bihotza dira. Marijaia da sinbolo ofiziala, beti gozatzeko prest dagoen emakume lodikotea.

Eta Aste Nagusia jai nagusia den arren, probintziako herriak borbor egoten dira beren zaindariaren jaietan. Zu baino ez zara falta!

Aste Nagusia



Kaxarranka (Lekeitio)



Trikitilari

Arku-dantza



Marinelenak, kulturalak... festarik festa

Marinel-debozua lurralde osoan barrena antolatzen diren hainbat jai patronaletan dago: "karmenak", "madalenak", "sanpedroak"... Lekeitioko **Kaxarranka** dantza Arrantzaleen Kofradiako kideak karguaz jabetzean egiten da. **Kilin Kala** jaietan, hauek ere Lekeition, atuntxikia arrantzatzen laguntzeko eskatzen da.

Oso jai ezaguna da **San Tomas**, Bizkaiko baratze eta baserriko produkturik onenak eskaintzen ditu eta milaka pertsona erakartzen ditu. **San Blasek** elizaren inguruan saltzen diren erroskillak eta lokarriak bedekintzen ditu eta eztarriko gaitzetatik babesten du. Bi egun geroago, Euskadiko kaleak abesbatzez betetzen dira, kantari eta makilez lurrean joz... **Santa Agata** da.

Aste Santua ere interesgarria izan daiteke, **Balmasedako Pasio Biziduna** edo **Durangoko Aste Santua** bezain ikusgarria bada. **Bilboko Aste Santuak** 3.000 kofrade baino gehiago biltzen ditu.

Eta festa eta abangoardiako kultura talentuz betetako ekimen batean konbinatu nahi badituzu, aipatzekoa da **Bilbao basque FEST** izenekoa, tradizioa, sormena eta berrikuntza uztartzen baititu, Bilbok bere nortasunaz harro dagoen hiri kosmopolita gisa esportatu nahi dituen balioak.

MILA

ehuni
baietz! 4A
GOOD
IDEA!

Oihu hauxe **entzungo** duzu, **besteak** beste, **pilotalekuan** euskal **pilota-partidaren** bat **ikustera** joaten bazara. Esan liteke **joko** hau betidanik egon dela **apustuari** lotuta. **Kantxa** pil-pilean dago; **emozioa** nabari da giroan.

Euskal pilota Euskadiko kirolik zaharrenetako bat eta errotuenetako bat da, baita kirolik unibertsalena ere. Hori, batik bat, emigrazioari zor zaio, atzerrira joandakoek tradizioak eta ohiturak eraman baitzituzten eurekin, tartean pilota, nortasun propioa duen kirola, mundu osoan pilota erabiliz dauden beste kirol batzuekiko oso desberdina.

Jokoa aldatuz joan da denborarekin, bai araei bai instalazioei dagokienez. Hiru motatako pilotalekuak daude: plaza libre, ezker-horma eta trinketa. Hainbat eratara joka daiteke eta bakoitzak bere pilota-mota erabiltzea eskatzen du. Hona hemen modalitateetako batzuk: **esku-pilota**, **pala** eta **zesta-punta**, eta, honen barruan, **joko garbia**, **erremontea**, **sarea** eta modalitate zuzenak (besteak beste, **paxaka**, trinketea jokatzeko dena, eta **laxoa** eta **errebotea**, azken hauek plaza librean jokatuak). Saiatu partida bat ikustera joaten; ia herri guztietan dago pilotaleku on bat.



LAN EGITEA

kirola da

Euskal landa-guneko lanak hainbat kirol-jardueraren jatorria izan dira, hots, **herri-kirolak**, indartsuena, azkarrena, etab. nor den ikusteko lehian. Horrela, enborrak moztetik **aizkolariak** sortu dira. Larrean segaz belarra moztetik datoz **segalariak**. Harri handiak mugitzetik sortu dira **harri-jasotzaileak**. Beharrak eraginda sortu dira **giza-abere probak**., astro-probak, zaldi-probak, idi-demak edo giza probak izan daitezkeenak. **Sokatira** hain zabaldua dago, ezen federazio bat eta nazioarteko txapelketak ere bai baititu.

Harri-jasotzailea

39

Trainerua

Arrauna beste euskal kirol tradizional bat da; hain da garrantzitsua, ezen ia herri guztiek baitute elkarteak. Tripulatzaileru-kopuruaren arabera, **bateletan**, **trainerilletan** edo **traineruetan** egiten da. Udan, norgehiagokak benetako pasioz bizitzen dira. Estropadaren amaieran, ezin bestekoa da jaian murgiltzea.

www.euskolabelliga.com

MERKATUAK

ezagutuz

"Sagarrak, porruak, piperrak, gazta... dena freskue". Merkatu bat bisitatzeko duzunean, hitzok eta beste asko entzungo dituzu. Merkatuek baserrietan baserriarren esku adituek landu dituzten lurraldeko produktuak ezagutzeko aukera ematen dute. Ekoizleekin zuzenean tratua ahalbidetzeaz gain, hurbiltasuna, freskotasuna eta kalitatea eskaintzen dute. Horridura-plazetan, Euskadiko landagiriorenak benetakoenez gozatu ahal izango duzu.

A
GOOD
IDEA

Erribera (Bilbao)

AZOKAK ETA KULTURA

Nekazaritzako zein abeltzaintzako **bertako produktuen azokak** ohikoak dira Bizkaiko hainbat herritan. Horietan, baratzekeko ohiko produktuak jartzen dira ikusgai, baita animaliak ere, primeran zainduta. Postuen artean paseatu ahal izango duzu eta haiek saltzen dituztenekin hitz egin. Giroan, salerosketa baino, jaia da nagusi, tradizioa eta herri-kultura uztartzen dituen.

Bilbon, **Erriberako Udal Merkatua** Europako merkatu estali handiena da, Guinness liburuaren arabera. Alde Zaharraren aurrean kokatua eta beti hiribilduaren nortasunari lotua, historia eta tradizioz beteta dago eta horregatik esaten da "betiko merkatua" dela.

www.mercadodelaribera.biz

Hiriburutik kanpo, merezi du **Gernika-Lumora** joatea, bertako merkatu famatua ikusteko, baina ez ahaztu astelehenetan egiten dela. Irail edo urrian jende mardoa biltzen da. Hil horietan, ikuskizuna are erakargarriagoa izaten da, baratzekeko produktu onenen eskaintza koloreaniztunarekin.

Durango Azoka

Euskal kulturarik garrantzitsuenak sustatzen du **Durango Azoka**; bertan, egile euskaldunen argitalpen eta lan diskografiko berriak kalera-tzen dira abenduan.

Nabarmentzekoak dira, halaber, **Bizkaiko Dantzari Eguna** (euskal dantzen eguna), **Bizkaiko Trikitixa Eguna**, **Bilboko Artisautza Azoka**, **Bizkaiko Abesbatzen Eguna** eta **BreakOnStage**, hiri-kulturaren nazioarteko jaialdia.

A
GOOD
IDEA

Jai handiaz gozatu nahi baduzu, folklore, kontzertuz eta kaleko jarduez bete, zator **Durango Azokara**.

Gernika-Lumo

Ibilaldiak itsasadarrean

42

43

**A
GOOD
IDEA !**

Ontziak alokatzen dituzten zerbitzuak daude ekitaldietarako, eskola-ibilaldietarako... Baina, itsasadarrek aisiarako askoz aukera gehiago eskaintzen ditu, hala nola trainerua edo piragua. Ez duzu esperientziarik behar, eta eman dezakezun denbora oso dibertigarria izango da. Paddle surfarekin izan dezakezunaren modukoa, uretako kiroletan azkena.



Itsasadarra beti izan da protagonista hiribilduaren historian

Bilboren historia ezin da azaldu **itsasadarra** gabe. Garai batean zonaldearen garapen industrialarekin lotutako arteria izan zena, gaur egun hiriak eskaintzen dituen aisiarako aukera berrien ardatza da. Itsasadarrean zehar ibiltzeko ontzi bat hartuz, argi ikusiko duzu Bilbok harrotasunez erakusten duela bere itxura berria.

Honako hauek dira aukeretako batzuk:

BILBOATS, ibilaldiak egunero itsasadarrean. www.bilboats.com

Kirola egitea gustatzen bazaizu, piraguismoa, kayaka, paddle surfa eta abar egiteko aukera duzu. Kontsultatu eta anima zaitetz:

BILBOBENTURA www.bilbobentura.com

AKTIBA www.aktiba.eus

EL BOTE TOURS www.toursbilbao.com

BILBAO AT SHIP www.bilbaoenbarco.es

Hemengo ekintza

ZALETASUNA

SURF arekiko

44

Gaur egun mundu osotik hona datozen surfisten kopurua izugarri handia da, baina 50eko hamarkadaren amaieran izan zen Biarritzera joaten hasi zirenean, euskal kostaldeari dagokionez. Hori sustatzen duten hondartzak edukitzea ezinbestekoa da, eta horixe bera da Bizkaiaren kasua. **Mundaka** adibidea da, 4 m garai eta 400 m luze diren olatuei esker onenen arteko erreferentzia-puntua delako. **Bakio** ere

olatuen kalitateagatik gailentzen den beste hondartza bat da. Oro har, Kantauri itsasoa eskuzabala da olatuak oparitzerakoan, eta batzuk World Class motakotzat jotzen dira, horregatik erakartzen dituzte urtero oholez ura betetzen duten zale ugari. Horri esker, txapelketak egin daitezke, hala nola Punta Galea Challenge txapelketa, Getxoko olatu handiaren surf-txapelketa edo **Sopelakoa**, zeina munduko zirkuituan sartuta baitago.

Hondartza horiek publiko guztientzat dira egokiak, eta surf egokitua egiteko aukera dago.

Piraguismoa, paddle surfa, kayak eta abar egiteko galdetu eta animatu besterik ez duzu:

AKTIBA Euskadiko Turismo**Aktiboko Enpresen Elkarte**www.aktiba.euswww.turismo.euskadi.eus/es/surfing-euskadiA
GOOD
IDEA

45

ZETAZEOAK

IKUSTEA

Itsaso osoa

barandatik ikusita

Kostaldeko puntu ezberdinetatik zetazeoak ikustea uste duzuna baino errazagoa da. Zehazki, Santurtzitik 10 orduko txangoak atera ohi dira izurdeak, pilotu-baleak eta beste zetazeo batzuk ikusteko, hala nola zere arrunta, munduko bigarren balea-espezierik handiena. Bermeo beste erreferentzia-puntu garrantzitsu bat da, kaxaloteak, orkak eta Cuvier moko-baleak ikustea ahalbidetu ohi dituzten txangoak ateratzen direlako bertatik. Izurde-barietate ugari eta aipatutako pilotu-izurdeak eta zereak (baleak) ere ikusi ohi dira.

www.hegaluze.comwww.verballenas.com

Goitik begiratuta *birding*

Urdaibai bisitatzen baduzu, paradisu natural batean izango zara; bertan, txori ugari begizatu ahal izango dituzu prismetikoeekin. Ingurunea hobeto ezagutzeko, **Urdaibai Bird Center** gomendatzen dizugu, Gautegiz-Arteagan. Ikerkuntza- eta dibulgazio-zentro horretan, hegaztiak eta horien habitataz aztertzen dira, fauna eta natura, oro har, babesteko. Zentroko behatokiak urtero Urdaibaitik igarotzen diren 200 espezieren baino gehiagoren urratsei jarraitzea ahalbidetzen du.

Urtero, udazkenean eta neguan, **Abra**, Getxon, hegazti migratzaileen babeslekuetako bat bihurtzen da, **Santurtzitik** irteerak antolatzen dira itsasontzian, hegaztiak begizatzeke.

www.turismo.euskadi.eus/es/birding

Done Jakue bidea

Bilbotik ere igarotzen da

Bilboko katedralak hiribilduko zaindari Santiago apostoluaren izena dauka, **Done Jakue bidearen** kostako adar batek hiria zeharkatzen duelako. Horren adierazgarri, Aingeruaren edo Erromesen atea oles egiten die, maskorarekin, bidean doazen erromesei. Izan ere, eremu honetan Donejakueren kultura hiribildua sortu baino lehenagokoa da, sorrerako hiri-gutunak erakusten duen bezala.

Izan ere, diotenez, kostako bidea, edo iparraldeko Donejakue bidea, peregrinazio-ibilbiderik zaharrenetako bat da eta marinel- eta nekazal-giroak eta hiri- eta landa-giroak uztartzen dituzten Euskadiko hainbat tokitan barrena doa. Markina-Xemeinen, barrualdean, hasten da eta Enkarterraino iristen da, Lea-Artibai eta Busturialdea kostaldeko eskualdeetan eta Bilbon barrena.

Mendi-ibiliak *urdinak eta berdeak*

Bizkaiko kostan zehar dauden **mendi-ibiliek** itsasertzeko paisaia ederrak erakutsiko dizkizute eta, aldi berean, lurraldearen historia eta bertako ondare kultural eta naturala ezagutuko dituzu. Seinaleztatutako bidexken sare zabal bat dago, bai ibilbide luzekoak (GR) bai ibilbide laburrekoak (PR). Goza ezazu eta, bide batez, dastatu zeharkatzen dituzun eremuetako gastronomia gozoa.

Kostatik, **Urdaibaiko nodoak** artadietan zehar, Oka ibaiaren ondotik, Mundakako itsasadarrean barrena eta hondartzaz eta itsaslabarrez beteriko itsasertzetik eramango zaitu. Halaber, baserri eta herri ederretako nekazaritza-ekoizpena ere ikusiko duzu.

Itsaslurreko Bide Berdeak Arena hondartza eta Pobeña elkartzen ditu itsaslabar ikusgarrien ondotik doan antzinako trenbide baten bidez.

www.turismo.euskadi.eus

Honetarako prest dagoen lurraldea: *zikloturismoa*

Bizikleta-zalea bazara edo bi gurpilen gainean kirola egiten duzun bitartean paseoez gozatu ohi baduzu, baita gastronomia, paisaia anitzak, ilunabar magikoak edo naturarekin kontaktuan egotea gustatzen bazaizu... erabakirik onena hartu duzu.

Bizkaia hori eta askoz gauza gehiago eskaintzen dizkizu, eta zikloturismo-ibilbide ugari dauzka, familia edo lagunekin zein bakarrik goza ditzazun.

A
GOOD
IDEA!

Bide berdeak, trenbide zaharretan barrena

Trenbideak leheneratzeari esker, ibilbideen balio historikoa, kulturala eta praktikoa berreskuratu da eta, horrela, txirrindulariek eta oinezkoek ekoturismoaz goza dezakete. Horiétako bat izan zaitezke.

Euskal zeramikaren nortasun-ezaugarria esmalte zuria da, alegia, eztainua, beruna eta harea kiskaltzearen ondorioa.

www.euskalzeramika.com



A
GOOD
IDEA

NORTASUNAREN adierazgarri diren PRODUKTUAK

tsasoak eta lurrak fruitu onenak eskaintzen dizkigute. Eta horiei gehitu behar zaizkie lantzen dituzten pertsonen esku adituak, kalitate handiko produktu bikainak dastatzea ahalbidetuz, aparteko bihurtzen dituen artisau-jakituriarekin zainduak. Maila horrekin produktu asko eskuratu ahal izango dituzu: **Idiazabal** eta **Karrantza** gaztak, **Gorbeiako** eztia, Bizkaiko *txakolina*, **Kantauriko** kontserbak, **Gernikako** piperrak, bakailoa... baita espelta- eta arto-ogia ere, adibidez.

Beste balioetako bat artisautza da, lurraldearen berezitasunaren adierazgarri: kaikuak, makilak, kutxak, zeramika, musika-tresnak...



Kaikua

48



49

A
GOOD
IDEA

Zentzumenetarako plazer bat diren gozamen ugari dituzu. Familiarekin eta lagunekin zauden bitartean dastatzea plan ezin hobe da.



Txakoli



Gorbeiako eztia



Idiazabal JDko gazta

Kontrolatutako jatorri-deitura babestuak eta kalitate-zigilua duten produktuak daude, produktotik azken kontsumoraino prozesu guztiak xehetasun handiz zaintzen direla egiaztatzen dutenak.

Informa zaitez Hazi Fundazioak ziurtatzen eta sustatzen dituen Eusko Label goi-mailako kalitateko produktuei buruz. Betiere, Euskal Baserri produktuak ahaztu gabe, denak hemen jaioak.

www.hazi.eus

DENA DISEINUA

50

Bilbok bizi izan duen norabide-al-daketak diseinua funtsezkotzat duten establezimenduak ekarri ditu. Hona hemen horietako batzuk:

Urbana 15, bertako *showroom* ikusgarrian azken joerak biltzen dituena.

Kartell, objektu berritzaileak sortzeko nazioarteko diseinatzaileekin lan egiten duena.

Imatra, ekoizpen artistikoko egiturak berritzean espezializatua.

Mosel, nazioarteko diseinatzaile ospetsuen al-tzariak, sukaldeak eta osagarriak eskaintzen dituena.

Persuade, abangoardiako modaren tenplua.

MADE IN EUSKADI

Giro naturalarekin erlazionatutako eta hemen diseinatutako jantzi eta osagarrietan espezializatuta dago **Skunkfunk**. "Street" modan bada erreferentziatzeko marka bat: **Loreak Mendian**. **Belaza Gallery** espazio «ireki» bat da eta askotariko modari artea gehitzen dio. Horietako dendaren batean sartuz gero, ziur gustuko duzun zerbait ezberdina aurkituko duzula.

Aipatzekoa da diseinatzaile gazteak agertu direla eta batzuek, gainera, denda ere jarri dutela. Ospetsuenen artean, besteak beste, Ion Fiz, Mirian Ocariz, Alicia Rueda, Mercedes de Miguel, Teresa Busto, Javier Barroeta edo Ana Valladares nabarmentzen dira.



Ertzilla kalea



Bilbo goi-mailako eta modako hiria denez, euskal eta nazioarteko diseinuaren ikonoak dituzten denda eta gune ugari aurkituko dituzu.

A
GOOD
IDEA

51

Zure ametsetako piezaren bila egotea... Hemen, aire zabaleko merkatuekiko zaletasun handia dago, baita bigarren eskuko dendeak ere, sorpresa hori topatu arte giro bitxietan barrena une dibertigarri bat igarotzeko aukera ematen dute-eta. **Areatzak** azoka, Bilbon, klasiko bat da. Hor elkartu ohi dira igandero filatelikoak, numismatikoak eta bigarren eskuko harribitxi-, liburu-, disko- eta komiki-saltzaileak. Gainera, lore-azoka polita ere dago hor. **Boluetako**, azoka ere igandean egiten da, eta bigarren eskuko gaiak aurki ditzakezu: objektuak eta arropa. **Vintage Bilboak**, Zorrozaurren, asteburuko antolatzen du bigarren eskuko arropa-azoka, pieza paregabeekin. 500 m² baino gehiago *vintage* arropa eta osagarriekin, edizio bakoitzean berritzen direnak, kontsumo jasangarria eta kontzientea sustatzeko. Hilabetearen lehen larunbatean, **Maiatzaren Bira** kalearen inguruan azoka alternatibo ospetsua antolatzen da, mota askotariko gauzekin eta zuzeneko musikarekin.



Areatza



SUAREZ

Zerutik hemengo
sukaldeetara
Michelin
IZARRAK

Euskadi harro dago munduko sukaldaritzako ospetsuenetako bat izateaz. Bertako sukaldariak eman zaizkien izar ugariak zerikusia dute harritzekoa den hobetzeko gaitasunarekin. Tenplu izardun hauetako edozeinetan sartzean, mirespen horren arrazoia ezagutuko duzu. Horietan guztietan berrikuntza da bandera.

Eneko Atxa (Azurmendi)

Profetak dira beren lurraldean eta hortik kanpo. Euskal sukaldariak establezimenduak gobernatzen dituzte, bai Euskadin, bai kanpoan, mugak gainditzeko dituen errekonozimenduarekin. Edozein lekutan, beren ospea aurretik doa eta sariak atzetik datoz, kritika ahobatezkoa izanik. Zaila izango zaizu bat hautatzea... denak nabarmen-tzen dira berezitasun batengatik.



Eman izena abangoardiako sukaldaritzako edo pintxoak egiteko tailerretako batean, eta goza ezazu sukaldearen eta partekatzearen gozamenaz.

Daniel García (Zortziko)

Horrek egin ditu gastronomiako sari handien merezidun: **Michelin izarrak**. Jatetxe horietan, gozamenaz jateaz gain, txundituta utziko zaitu fintasunak, xehetasunen gaineko arretak, lanbi-dearekiko pasioak.

Bizkaiari begiratuz gero, Larrabetzun, **Eneko Atxa** gidatzen duen **Azurmendi** jatetxeak hiru izar dauzka, eta **Eneko** jatetxeak bat (Larrabetzu). Izar batekin baita ere, orain **Roberto Asuak** gidatzen duen **Andra Mari** jatetxea (Galdakao), **Jabier Gartzia** buru duen **Boroa** jatetxea (Zornotza), **Victor Arginzoniz**ek kudeatzen duen **Etxebarri** erretegia (Atxondo), Tetsuro Maedak kudeatuta eta **Julen Bazek** gidatzen duen **Garena** jatetxea (Dima) dauzkagu.

Bilbon, berriz, izar bana duten hainbat jatetxe daude: **Daniel Garciaren Zortziko**, **Josean Alijaren Nerua**, **Alvaro Garrido** eta **Lara Martinen Mina**, **Sergio Ortiz de Zarateren Zarate**, **Fernando Canalesen Atelier Etxanobe** eta **Martin Berasategiren Ola**.

Gastronomia hitza sakratua den lurralde honetan, erraza da kalitatez eta irudimenez jateko leku ugari aurkitzea.

EGILE SUKALDARITZA

54



BETIKOA

Euren menuak Bizkaiko sukaldaritza tradizionalako platerik tipikoenak eskaintzen dituztelako bereizten dira, eta, bidezkoa da esatea, benetako euskal sukaldaritza direla.

Hitz berak presarik gabeko otordua iradokitzen du, non dastatzearen plazerra nagusitzen den. Horrelako filosofia bat logikoa zen hemen oihartzuna aurkitzea. Jatetxe ugari egiten dute sukaldaritza preziatzeko modu berri hau, bertako elikagaiekin, sasoikoekin, mokadu bakoitzeari gozatuz...

SLOW FOOD



55

URBANMENUA

Bilbok bizi duen aldaketa urbanistiko eta sozialaren ondorioz, errealitate berri horri erantzuten dioten jatetxe modernoak ezarri dira. "Eguneko menu" onak eta karta sinplifikatuak aurkituko dituzu estetikarako zaletasuna beste osagai bat den inguruneetan.



Hona hemen jatetxe guztiak:



PINTXOAK

gozamena txoko guztietan

Tradizio guztiz euskalduna da. Tabernetako barretan premiak bultzatuta hasi ziren agertzen, eskatzen ziren ardoei laguntzeko. Pixkanaka, ezinbesteko bihurtu ziren, beren liluramenagatik, ibilbidea askoz ere erakar-garriagoa eginez.

Pintxoak halako sofistikazio-mailara iritsi dira, ezen pintxo bakoitza ongien uztartzen den ardoaz lagundu behar baita. "**Pintxoak** jatera joateko" ohitura probintziako edozein herritan aurki daiteke, aldi berean gastronomia eta adiskidetasuna lantzen dituen. Leku jakinetan **pintxo**-ibilbideak daude, bakoitza bere estiloan, eta **txikitoak** hartzeko ibilbideen bide berari jarraitzen diote. "Miniaturoko sukaldaritzaren" jaki gozo hauetako bat dastatzearen esperientzia bititza benetako gozamena da.



Otordua modurik onenean **HASI** edo **AMAITU**

Otordu on bati hasiera ona eman behar zaio, esate baterako, janaurreko berezi batekin. Bilboko Alde Zaharrean bazabiltza, Barrenkaleko Ander tabernak aukera bikaina eskain diezazuke; hots, ezin hobeki prestatutako bermuta. Indautxun barrera bazabiltza, Estorilek edo Campuzano plazako Atlantak eskainitakoak benetan apartekoak dira.



Inoiz **Bilboko urari** buruz entzuten baduzu, anekdotak dio hitza bilbotar ahobero batzuek asmatu zutela Athletic-ek Real Sociedad garaitu zuela ospatzeko Donostiako jatetxe batean egin zuten afari baten ostean. "Bilboko ura" eskatu zutenean, zerbitzariak barkamena eskatu zieten, ez zutelako. Zer zen jakin zutenean, hau da, cava, kopak bete zizkieten, baina ez zieten kobratu, bertan ura oparitu egiten zela esanez.

Kalimotxo

Ba al zenekien kalimotxo, Coca-Cola eta ardo beltza nahasiz egina, aspaldi bota nahi ez zen ardo mindua aprobetxatzeko nahiaren ondorioz sortu zela. Jaietan, edari nagusia da.



ausart zaitez

gaur zuk prestatuko
duzu bazkariaA
GOOD
IDEA

Hona hemen Bizkaiko gastronomiaren ohiko jakietako batzuk. Hainbeste daude, eta hain dira gozoak denak, ezen zaila baita laburpen bat egitea. Animatzen bazara, ziur norbaitek erakutsiko dizula horiek prestatzen.

BAKAILAOA
PIL-PIL
ERARA

Olioaren eta azaleko gelatinaren arteko nahasketa emulsionatzeko buztinezko eltzea zirkularrean mugituz sortzen den borberraren onomatopeia.

BAKAILAOA
BIZKAIKO ERARA

Euskal Herriko jaki garrantzitsuenetako bat. Oinarrian tomatea duela iruditzen arren, saltsaren osagai nagusia piperriz txorizeroa da.

GERNIKAKO
PIPERRAK

Benetan gozoa da eta lehengai ona eta olio oso beroa besterik ez ditu behar, alde bakoitza 15 bat minutuz frijitu eta atera. Itxaron 30 segundo, bota gatza... eta gozatzerara!

PISTOA
BILBOKO
ERARA

Kuia, piperra, tomate, tipula... pistoa da. Eta arrautza gehitzen badiuzu dena ondo nahasi arte, pistoa Bilboko erara egingo duzu. Bertako sukaldaritzako klasika.



MARMITAKOA

Marmita... arrantza-ontzietan marmitakoa prestatzeko ontzia.

Garrantzitsuenak hegaltza, osagai nagusia, hezea egotea da. Errezeta osatuz, patatak, tipulina, piperra, baratxuria eta tomate.

GERNIKAKO
BABARRUNAK

Txerriki prestatu berriak, baratxetik une egokian jasotako babarrunak... Hain plater osatua da, ezen ez baitu besterik behar.

GOZO-
ZALEAK

gara

BILBAO
BIZKAIA

Malba zurizko gozokia




Gurinezko opila

Gernika-Lumora joaten bazara, eros itzazu **ori-baltzak**, bizkotxoak, hori-kolorea ematen dioten txokolate zuriz ("horia") edo txokolate esne-dunak ("baltza") estaliak. Ohiko beste gozo bat, hau Markina-Xemeingoa, kokoteak dira, azukrez eta arrautza-zuringoz estalitako bizkotxo finak.



Arroz-pastela



Karolina

Oso "bertakoak" dira **malba zurizko gozokiak**, ez-tarriko gaitzak arintzeko efektu lasaigarria dutenak. Diotenez, **gurinezko opila** ere "made in Bilbao" da... Horiekin batera, **errusiarrak**, **jesuitak**, **kristinak**... daude. Aukera zabala duzu.

TOP deitzen dira onenaren artean onena direlako. Benetan merezi dute bisitatzea, dastatzea, erostea, gozatzea... Nahitaezko gisa hautatu dugun esperientzia-multzo bat, bisitan etortzen zarenean benetan merezi dutelako. Sar itzazu zure egitarauan.

Artea berezkoa da, GUGGENHEIM BILBAO

Begiratu eta emoziona zaitez. Bere arkitektura abangoardistarekin harrituko zara. Izan ere, horren inguruan eraldatu da hiri osoa eta "Guggenheim Bilbao" efektuaren parte izan da.



GAZTELUGATXEKO DONIENE

Paregabea eta ikusgarria... Halakoxea da Bizkaiko kostan, Bakio eta Bermeo artean, dagoen ingurunea.



PARKE NATURALA bizkar-zorroan

Egia esan, hiru daude, zein baino zein ederragoa eta bitxiagoa. Honako hauek dira: Urkiolako Parke Naturala, Gorbeikoa eta Armañongoa. Ikaragarriak.



Hiria ITSASADARRETIK

Bilbao berriaren beste ikuspegi bat izango duzu itsasadarrean nabigatzen baduzu, horretarako eskura dauden aukeren bitartez. Ikusiko duzu, merezi du.



PINTXOAK mokadu txikiak

Taberna guztietako barretan daude. Kolore askoko ikuspegi txundigarria. Betikoak aurkituko dituzu: gilda gozoak, bakailao hezeak, mendrezka... baratzeiko askotariko produktuak; baina baita pintxo sofistikatuak ere, imajinazioari ateak zabaltzen dizkietenak. Era batera edo bestera, gustuko izango duzu esperientzia.



Zorte oneko JAKIAK:

Herri baten balioak eta nortasuna sukaldaritza onaren bidez dastatzen dira. Ausart zaitez Michelin izar bat duen edo egile-sukaldaritza eskaintzen duen jatetxe batekin. Ahozuri, mahaia prest dago!



TXAKOLI BIKAINA

Hutsik har dezakezu, pintxoren batekin edo jatetxe eta erretegiatiko kartetako arrain edo itsaskiren bati lagunduz.



MERKATU BAT bisitatzea

Sukaldaritza entzutetsu honen errezeptetako produktuen freskotasuna bizitzea benetako gozamena da eta areagotu egiten da leku tipiko batean dastatuz gero. Egiaza ezazu.



HERRIETAKO JAIAK

Jaiez dugun ikuspegiaren nortasun-adierazle dira. Garaikideagoak dira batzuk, besteak beste, Bilboko Aste Nagusia, eta tradizionalagoak beste batzuk, adibidez, Lekeitiokoak edo Ondarroakoak. Edonora zoazela, inoiz baino hobeto pasatuko duzu.

Ilunabarra HONDARTZAN

Kostan barrena, 28 dituzu aukeratzeko: hirikoak, familientzat prestatutakoak, gazte-girokoak, basatiak, hareatsuak, harritsuak... Denek kalitate-zigilua duten harea eta zerbitzuekin.





"BASQUE WORLD" MUNDURAKO ATEA

Hemen dena dago hurbil... Bilbotik autoz bi ordura baino gutxiagora interes turismo handiko lekuak daudela ikustean konturatuko zara horretaz. Donostia ingurune paregabea da, beti ikusgarri dago. Gasteizen berdeguneen eta ondarearen nahasketa nabarmentzen da. Arabako Errioxak ardogintzan sortu duen ondare historikoa du bereizgarri. Iruñean, bertan bizi izan diren kultura ugari azarnak indartsu dirau. Biarritzek, Côte Basque-n, gaur egun ere hauteman daitekeen garai bateko glamourra du. "Basque World" munduan sartzeak ez du inoiz hutsik egiten.



62



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Kontxako badia

63



Haizearen orrazia

Europako hiri ederrenetako bat dela esaten dute. Tradizioa eta modernitate dotorea nahasten ditu. Igeldo menditik edo Uliako behatokitik dauden ikuspegiek, Parte Zaharreko giroak, eraikin bikainek... Guztiak bat egiten du hotz utziko ez zaituzten lekuak osatzeko. Donostian, gozatu egingo duzu Kontxatik Haizearen orraziraino paseatzen, tabernetako barrak estaltzen dituzten pintxo gozoak dastatzen, Bretxako edo San Martingo merkatuak, Aquariuma, San Telmo Museoa edo Kursaal biltzar-jauregia bisitatzen, Maria Kristina hotelaren eraikin ikusgarria eta Vitoria Eugenia antzokira hurbiltzen, etab. Horretaz gain, 2016ko Europako Kultura Hiriburua izendatu dutela kontuan hartzen badugu, bisita nahitaezkoa dela ikusiko duzu.



Pintxoz jositako barra

Nazioarteko Jazzaldia, Zinemaldia, Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astea... Hori baino askoz gehiago dago. Izan ere, hemengo gastronomia mundu osoan ezaguna da, argi propioarekin distira egiten duten 18 Michelin izarrekin. Hortik kilometro gutxira, Getariako udalerrian, ez ahaztu Balenciaga Museoa bisitatzeko, haren jaioterriak justu kotizatuenetako baten omenez sortu duena.

VITORIA-GASTEIZ

Berdea, bizia, monumentalak

64

Bertako multzo historikoak Ken Follet idazleari bere literatura-lanetan inspirazio gisa balio izan dio eta, nola ez, Andre Maria Zuriaren katedralaz gain, Gasteizek Erdi Aroko hirigune benetan ederra du. Ibilbidean zehar, eraikin eder ugari ikusiko dituzu: jauregiak (Montehermoso, Bendaña, Escoriaza-Esquivel, Augusti -egun Arte Ederren Museoa-), beste garai bateko plazak (Brulleria, Matxete...) eta baita hirigunea inguratzen zuen harresiaren zati bat ere. Karten hirian, Bibat bisitatu behar duzu, karta-sorta historikoak eta aztarna arkeologiko interesgarriak bateratzen dituen museoa. Eta, nola ez, aisialdirako dituen eremu zabalak ikusita (besteak beste, Eraztun Berdea) garbi geratuko zaizu zergatik izendatu duten hiriburu berde. Aparteko ingurunea dira gatz-haranari izena ematen dioten gatzagak, hiriburutik kilometro gutxira. Benetan merezi dute.

Eraztun Berdea

Gesaltza Añana

IRUÑEA

Iruñeak bertan bizi izan diren kultura ezberdinen aztarnak erakusten ditu bere monumentu, plaza eta toki bitxi ugarietan. Aberastasun horri lasai paseatzera gonbidatzen duten parke ugariak gehitu behar zaizkio. Horren guztia-ren erdian dago Hemingway idazleak betikotu zuen festa.

ARABAKO ERRIOXA

Mahastiak, paisaia, historia

Bertako ardoek nazioarteko ospea dute, ardogileek beren lanean jartzen duten pasioari eta klima pribilegiatu bat izateari eskertu behar zaion errekonozimendua. Baina Arabako Errioxak historia ere badu. Bertako ingurune batzuk ikusi besterik ez duzu; Guardia, herri harresitu ederra, Erregeen Andra Maria eliza eta bertako elizatari ikusgarria protagonista dituen; aztarna megalitikoak (besteak beste, Sorginaren Txabola, Los Llanos eta El Sotillo); etab. Baina natura ere badu, esate baterako, Biotopo Babestuko hezeguneak, balio biologiko eta ekologiko handikoak, garaia-aren arabera bertan bizi diren hegazti-espezie ugariengatik.

BIARRITZ, CÔTE BASQUE

Bere armarrarian erakusten du bale-arrantzarekin lotutako jatorria, eta XIX. mendean gizarte-maila handiko bainuetxe bihurtu zen. Hiriak ospea lortu zuen Napoleon III.aren emazte Eugenia enperatrizak jauregia eraikitzea agindu zuenean, gaur egun Hôtel du Palais hotela dena.

65

BILBAO TURISMOA
www.bilbaoturismo.net
BIZKAIA TURISMOA
www.visitibiscay.eus
EUSKADI TURISMOA
www.turismo.euskadi.eus

TURISMO-BULEGOAK

BILBO

-  BILBO TURISMOA
· Plaza Biribila 1, Terminus eraikina · 944 795 760
 · Mazarredo zumarkalea 66 (Guggenheim Bilbaoren ondoan)
· Aireportua 944 031 444

BIZKAIA

- BAKIO**
946 193 395 · www.bakio.eus
- BALMADEA - ENKARTUR**
946 802 976 · www.visitenkarteri.com
- BERMEO**
946 179 154 · www.bizbermeo.eus
- DURANGO**
946 033 938 · www.turismodurango.net
- ELORRIO**
946 820 164 · www.elorrioturismo.eus
-  **GERNIKA-LUMO**
946 255 892 · www.gernikainfo.eus
-  **GETXO**
944 910 800 · www.gebo.eus/turismo
ITG - Informazio Turistikoko Gunea
Marxotik abendura · 615 75 62 90
-  **GORLIZ**
946 774 348 · www.visitgorliz.eus
- KARRANTZA-HARAÑA**
946 806 928 · www.karrantza.org
- LEKEITIO**
946 844 017 · www.lekeitioturismo.eus
- MUNDAKA**
946 177 201 · www.mundakaturismo.com
- ONDARROA**
946 831 951 · www.ondarroa.eus
- URDUÑA**
945 384 384 · www.ordunaturismo.com
- OROZKO**
946 122 695 · www.gorbeiauskadi.com
- PLENTZIA**
946 774 199 · www.visitplentzia.com
- PORTUGALETE**
944 729 314 · www.portugalete.org
-  **SANTURTZI**
944 839 494 · www.visitsanturtzi.eus
- SESTAO**
944 070 985 · www.sestao.eus
-  **SOPELA**
944 065 519 · https://turismo.sopela.eus/
ZIERBENA (La Arena)
662 547 468 · www.zierbena.net
(urtaroaren arabera/aldizka irekitzen da)

GARRAIOA

AIREPORTUA
Bilbo-Loiu · 913 211 000 (AENA)
www.aena.es/es/bilbao.html

ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA
Bilbo-Portsmouth ferrya 902 108 147
www.brittany-ferries.es

TRENAK
RENFE. Abandoko Indalecio Prieto geltokia
Plaza Biribila 2
Bezeroei laguntzeko tel. ADIF 912 432 343
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE Bilbo 944 879 222
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE 912 320 320
www.renfe.com / www.adif.es

EUSKOTREN
Bezeroei laguntzeko tel. 944 333 333
www.euskotren.eus · 944 019 900

FEVE. La Concordia geltokia
Ballen kalea 2

AUTOBUSAK
Bilbao Intermodal (autobus-geltokia)
Gurtubai 1 · 944 395 077
www.bilbaointermodal.eus

Bilbobus (udal-autobusak)
946 855 000/ 944 790 981
www.bilbao.net/bilbobus

Bizkaibus (autobusak, probintzia eta aireportua)
946 125 555 · www.bizkaia.eus

BILBOKO METROA
946 855 000 · www.metrobilbao.eus

TRANBIA
944 333 333 · www.euskotren.eus

TAXIAK
Radio Taxi Bilbao
944 448 888 · www.taxibilbao.com

Tele Taxi
944 102 121 · www.teletaxibilbao.com

Radio Taxi Nervión
944 269 026 · www.radiotaxinervion.com

Gebon:
BIZKAITAXI
www.bizkaitaxi.eus / 94 491 53 53

GETXOBIZI
www.nextbike.es / 900 29 35 51

BIZIKILETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA
Bilbaobizi
946 564 905 · www.bilbaobizi.bilbao.eus

OROKORRA

LARRIALDIAK 112
INFORMAZIO OROKORRA 010
(Bilbo udalerri barruko deietarako)
944 010 010 (Bilbo udalerri kanpoko deietarako)

KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA
944 706 426

HERRITARREN ARRETA BILBOKO UDALA
944 204 200

ERREPIDEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA
011

GALDUTAKO GAUZAK
944 204 981 / 944 205 000

OSTATUAK

NEKATUR/LANDA-OSTATUAK
943 327 090 · www.nekatur.net
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus

HOTEL ENKARTUR
www.destinobilbao.com

XARMA, Euskal Herriko ostatu xarmagarrien elkarte
www.xarmahotels.com

BILBOKO MUSEOAK

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA
www.guggenheim-bilbao.eus · 944 359 000

ARTE EDERREN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 396 060

ARTE SAKRATUAREN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 320 125

ITSASMUSEUM BILBAO
www.itsasmuseum.eus · 946 085 500

ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA
www.museodepasosbilbao.com · 944 150 433

BILBOKO ZEZEN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 448 698

MUSEO VASCO / EUSKAL MUSEOA
www.euskalmuseoa.eus · 944 155 423

BERREGINEN MUSEOA
www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/es · 946 790 255

ATHLETIC CLUB MUSEOA
www.sanmames.athletic-club.eus/museo · 944 661 100

EUSKARAREN ETXEA
www.euskararenetxea.eus · 944 028 081

ARKEOLOGIA MUSEOA
www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 944 040 990

BIZKAIKO MUSEOAK

KOSTALDEAN

ARRANTZALEEN MUSEOA (Museo del Pescador)
Bermeo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 881 171

BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA
Plentzia · www.museoplentzia.org · 94 677 37 25

RIALIA INDUSTRIA-MUSEOA
Portugalete · www.portugalete.org/ES-ES/RIALIA · 944 729 200

SANTURTZI ITSAS MUSEOA
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494

AGURTZA ONTZI-MUSEOA
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494

BIZKAIA ZUBIA
Areeta (Gebo) /Portugalete
www.puente-colgante.com · 944 801 012

PUNTA BEGOÑA GALERIAK
Gebo · www.puntabegonagetxo.eus

URDAIBAI BIRD CENTER
Gautegiz-Arteaga · www.birdcenter.org · 699 839 202

EKOETXEA URDAIBAI
Busturia · www.ekoetxea.eus · 946 051 275

TXAKOLINGUEA - TXAKOLINAREN MUSEOA
Bakio · www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea · 946 028 513

SANTA KATALINA ITSASARGIA
Lekeitio · www.lekeitioturismo.eus/es · 946 844 017

BARRUALDEAN

SIMON BOLIVAR MUSEOA
Ziortza-Bolibar · www.simonbolivarmuseoa.com · 946 164 114

DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA
Durango · www.durangomuseoa.eus · 946 030 020

ENKARTERRIETAKO MUSEOA
Sopuerta · www.enkartermuseoa.eus · 946 504 488

EL POBALEKO BURDINOLA
Muskiz · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 629 271 516

EUSKAL HERRIA MUSEOA
Gernika-Lumo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 255 451

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDATZIOA
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200

GERNIKAKO BATZAR ETXEA
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200

BASONDO
Urdaibako basafaunaren aterpea (Kortezubi)
www.basondo.com · 946 254 436

MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA,
"JOSE LUIS GOTT"
Leioa · www.ehu.eus · 946 012 000

OROZKOKO MUSEOA
Orozko · www.orozkomuseoa.eus · 946 339 823

EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA
Gallarta · www.meatzaldea.eus · 946 363 682

BALMADEAKO HISTORIAREN MUSEOA
Balmaseda · www.visitenkarteri.com · 946 802 976

LA ENCARTADA FABRIKA MUSEOA
Balmaseda · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 800 778

VALENTÍN DE BERRIOTXOA MUSEOA
Elorrio · www.visitelorrio.com · 946 820 164

LOIZAGA DORREA, ANTZINAKO AUTOEN ETA AUTO
KLASIKOEN MUSEOA
Galdames · www.torreloizaga.com · 672 248 759

BURDIN HESIAREN OROIMENAREN MUSEOA
Berango · www.cinturondelherro.eus · 946 682 143

ANTZASTI MUSEOA
Dima · Artaun auzoa 35, 48141,
www.antzasti.eus · 628 32 22 75

MUSEO DE ORDUÑA / URDUÑA HIRIKO MUSEOA
Urduria · orduñahiria.org · 635 751436

KARPIN FAUNA, BASAFAUNAREN
HARRERA-ZENTROA.
Karrantza
www.bbkarpinfauna.eus
946 107 066

HONTZA MUSEOA FUNDATZIOA.
Mañaria · www.hontzamuseoa.eus · 946 216 555

IZENADUBA BASOA
Euskal mitologia-parkea. Olentzeroren etxea
Mungia · Landetxo Goikoa baserria
www.izenaduba.com · 946 740 061

DOLOMITAS FABRIKA MUSEOA
Karrantza · www.visitenkarteri.com · 946 806 928

KONTZEJU ZAHARRA INTERPRETazio-ZENTROA
Markina Xemein · www.leaartibaiturismo.com/es/hacer/detalle/
kontzeju-zaharra · 618 595 593

MUÑATOIZKO GAZTELUA
Muskiz · www.visitenkarteri.com · 629 271 516

ANGURRETA HARROBIA ARTE ESPAZIOA
Mañaria · angurreta@gmail.com

NATURAGUNEAK

URDAIBAIKO BIOSFERAREN ERRESERBA
www.urdaibai.eus · Tel.: 94 403 23 60
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus

GORBEIAKO NATURA-PARKEA
946 122 695
www.gorbeiauskadi.com

URKIOLAKO NATURA-PARKEA
946 814 155 · www.urkiola.net

ARMAÑONGO NATURA-PARKEA
946 560 079 · www.visitenkarteri.com

POZALAGUAKO KOBAZULOA
www.cuevadepozalagua.eus

SANTIMAMIÑEKO KOBAZULOA
santimamiñe.com

OMAKO BASOA
www.bizkaia.eus/es/web/bosque-oma-basoa



bilbaoturismo.net
visitbiscay.eus



BILBAO
BIZKAIA
be basque

EUSKADI
BASQUE COUNTRY